



gogoeta

Asma zak, asma zak

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA
'TXILLARDEGI'
IDAZLEA

Lehengoan PNVren barruan urtar-
rirlaren 18an gertatu den Estatu
Kolpeaz mintzatu nintzen.

Aide batetik, egia da PNVk aspaldida-
nik jokatzeko duela errejonalismo espainiar
huts-hutsaren alde. Eta, taktikak pe-
rrestro, eta egin beharrezko urratsak
behin eta berriz gerorako utziz, abertzale-
letasunari trabak alor gutzietan ipintzen
dikioa. Denbora berean, isilka, Espaini-
arekiko kolaborazio tinkoa aurrera da-
ramalarik.

1903ko Azaroan hil zen Sabino Arana
Goiri. Ehun urte.

Hots, berehalatik, *sotismo* deritzen po-
litikabidea gorpuztu zen PNVn. Alegia,
Sabinoren ospeaz jantzirik, guk ezagut-
zen dugun neo-karismo ultra-eskuin-
dar eta espaniolista nagusitu zen.

Engrazio Aranzadi Kizkitza gipuzkoa-
rra bihurtu zen PNVren ildo ideologikoan
reton zuzendaria. Artean eta atzean Ramon
Sota negurritikoak behar adinako diru-
laguntza eta burgesiaren oniritzia eskaintzen
zizkiolarik.

Integritas motik zetorren Kizkitza; eta
bere liburuaren azalean bertan errepara-
daitekeenez, ohorezko zatitza zeukan frai-
le jatorri hori. Eta gero ezkonduko ba-
zen ere, bere izenaren ondoan, O.B. letra
mixteriotuak erantsi ohi zituen. Alegia:
Beneditarren Ordenakoa.

Pragmatismoaren izenean, oraintxe
arte PNVn gidari izan diren moldakak fin-
katu zituen. Itxuraren mailan (hautes-
kunde garaian, adibidez) Arana-Goiri-
ren hizkera erradikalari eustea. Baina
egiazko praxi politikoan, bestetan esan
izan dugun bezala, pase forala (se obede-
ce, pero no se cumple) erabat ukatuz, se
obedece la legalidad española, y además se
cumple y se hace cumplir. Ertzantzenen jo-
kabeak lekuko.

Zenbait mementuan bikeria iraukerak
horrek, Alderdiko abertzaleen artean,
barne-irabirira latak sortu dizkio. Baina

idea eklesiastiko ezagunak baliatuz
(Doctores tiene el Partido que os sabrán
responder, Fe es creer lo que no vemos por-
que el E.B.B. lo ha revelado, eta abar), goi-
koei men egiteko tradizio saldokoiari
eutsi diote: guk ez diagu batere garbi
ikusten zertan ari garen; baina goikoek
bakekitez. Eta aurrera.

Orain ere, jakina, horretan txite daude
gauzak.

Josu Jon Imazek lotsarik batere gabe
hartu ditu Sotismoa eta Kizkitza bere
Aita Pontekotzat. Eta Euskal Herriak
orain Sabinok euskal karlistekin izan zituen
problema berak izango ditu PNV
desmozorrotzeko eta gainditzeko.

Salaketa hau eginez ez ditugu guk
Auto-Determinazioa eta Bloke Abertzalea
ukatzeko. Baina Bloke Abertzalea in-
dar abertzaleek osatu behar dute defini-
zioz. Eta gaurko PNV, areago Urtarrila-
ren 18ko Estatu-Kolpearen ondoren, ez
da alderdi abertzalea. Profeta aparta
izan gabe esan daiteke Ibarretxeren Pla-
na ez dela inoiz aurrera eramango.

Gauza hauek garbi ikusiko ez ditugu
no, jai daukagu.

XX. mendeko lehenengo bi hamarka-
detan, Kizkitza-Sota-ren Comunion de-

Sabinok euskal karlistekin izan zituen problema berak izango ditu Euskal Herriak PNV desmozorrotzeko

lakoak benetako Estatu-Kolpe eman
zuen PNVn. Luis Arana-Goiri bera, Zaba-
la Kondaño, eta beste, bota zituen parti-
duti. Eta Euzkadi aldizkari ofizialen
kontrol ideologiko hertsia ezarri zuten.

Eli Gallastegiren lagunek, eta gazte
abertzalerik gehienek, ez esan zitoten
erreformari. Eta Aberri taldea sortu zen.
Gerora, 1921an, PNV abertzalea arra-
piztuz.

Eszisioa gauzatu zen, hitz batez. Eta
Primo de Riveraren diktaduraren ga-
raian Madrilek talde eta erakunde aber-

tzaleak erasotzerakoan, Kizkitza-Sota-
ren Comunion errejonalista eskuinda-
rra lasai asko ibili zen.

Orain hemen ez omen dago horrelako-
rik somatzen; nahiz Egibarren joerakoek
bazterketa lotsagabea eta benetan osoa
hor egon.

Dirudienez, gu ez. Baina alderdikide-
ak, oro har, se sienten cómodos en España
bajo el mando de Josu Jon. Badakizue
beste birukide famatuak hark esan zuen-
a: Con la independencia a comer berzas.
Beajondeizuela!

Hala ere, niri behintzat, PNVren egoe-
rak 18921koa gogoratzen dit.

Eta frogatzen dugu.

Kizkitzaren eta Imazzen esaldiak
emango ditugu ilaran, binaka, zein nore-
na den argitu gabe. Asmatuko dituen irakur-
learentzat domina bat eskatzen dugu.

I-a / Pregunta: La propuesta suya es
una propuesta más para quedarse en Es-
paña que para irse. Respuesta: Eso es evi-
dente.

I-b / No solo es lógica la actuación polí-
tica nacionalista, enderezada a la deroga-
ción de la Ley del 25 de Octubre de 1839. Ni
podemos perseguir menos, ni podemos
perseguir más que ello.

II-a / El debate sobre la independencia
no está encima de la mesa... Los vascos
hemos sufrido demasiado las fronteras,
como para que nuestro objetivo sea crear
unas nuevas.

II-b / Pudo Arana-Goiri dar a la Comu-
nión que fundó, un lema exclusivamente
nacionalista. Esto es, un lema cuyo térmi-
no político fuera el derivado del principio
de nacionalidad. Habría sido, dada su sig-
nificación católica, el de Dios y Patria,
Dios e Independencia, y Dios y Libertad.
Pero no hizo esto.

III-a / Adherirse exclusivamente al fun-
damento filosófico... con absurdas ne-
gociaciones negociaciones de derechos étni-
cos y nacionales... prescindiendo de la ra-
zón y títulos históricos, hubiera sido un
gran error.

III-b / La nación vasca debe sustentarse
en los derechos históricos.

IV-a / Construir un nuevo partido vas-
co, que sea a la vez español, que aspire a la
felicidad de este país dentro del Estado es-
pañol, que camine hacia ella sin quebrantar
la legalidad presente.

IV-b / La idea del frente abertzale no
está en absoluto recogida en la ponencia...
Ni siquiera se menciona el término nacio-
nalista en el marco de la creación de un
consejo de partidos... Aquello (Litarraga-
Garazi) ya terminó. La ponencia del PNV
tiene un capítulo que hace la autocritica de
aquel proceso. La hemos hecho. Aquella
negociación es el pasado, y desde luego sa-
bemos que es irreplicable.

V-a / Buscamos el reconocimiento y el
desarrollo de una pequeña nación dentro
del contexto europeo.

V-b / No es el aspecto político lo único, ni
lo dominante de la acción nacionalista, ni
por ello es la independencia el fin único ni
el principal del nacionalismo.

VI-a / (parafraseando ligeramente) Con-
denamos la sublevación irlandesa, como
condenamos y condenaremos la sub-
versión de la India contra el gobierno de-
mocrático de Londres.

VI-b / No vamos a abandonar nuestro
camino, ni a renunciar a lo que somos. No

Profeta aparta izan gabe esan daiteke Ibarretxeren plana ez dela inoiz aurrera eramango

lo hicimos en Chiberta hace 27 años, y mu-
cho menos vamos a hacerlo ahora.

VII-a / Los pueblos pueden cambiar la
lengua sin llegar a su disolución.

VII-b / Dentro de un pueblo y de sus ca-
racterísticas, no hay nada esencial ni in-
mutable. Todo cambia. La única cosa esen-
cial es la continuidad.

Bego gaukoak bere horretan.
Kizkitzak, nolanhari ere, nazio etnikoa
aipatzen zuen. Imazek ez.

PNV nora doan aurki ikusiko dugu.
Agiar ba!



hitzordua

Gipuzkoako hondakinen...

(Aurreko orrialdetik dator)

Errauste planta. Tratamendu era
hori ez da egokia hiri hondakinak kudea-
teko, eta arrazoiak asko daude:

1) Errausketara gure hondakinak
bideratzen lehengai asko erretzen ditu-
gu, eta hori ez da jasagarritasun irizpi-
dearekin uzartzen. Erretzen dugun
energia gehiago da sortzen duguna
baino. Nahiz eta gero energia iturri beza-
la saldu.

2) Gipuzkoako Mankomunitateek
orain arte izan duen kudeaketa —birzi-
klatzea bultzatu urterik urte— zapuztu-

ta gelditzen da errausteko bidea hartuta.
Birziklazioa eta erraustea kontrajarriak
dira. Batetik, errausketara doazen hon-
dakinak birziklazio hondakinak dira
(plastikoa, papera, oihala...); bestetik,
materia organikoak (hezetasun handiena
duena gure etxeko zaborretan) suari ura
botatzeko bezalaxe litzateke.

3) Errausteak hondakin kutsagarrien
iturburuak dira: a) dioxinak, furanoak
eta metal astunak atmosferara isurtzen
dituzte. b) forma solidoan, berriz, %30
erraustu eta hauts zabortegi berezietan
gorde behar izaten dute.

4) Gizakien osasunean eragin handia

dute, kateatuta eta pilatuta bezala joko-
tzen dutelako zenbait agente kutsagarrik
(dioxinak, metal astunak...).

Gipuzkoako plan osoaren apustu han-
diena errauste planta bideratzea da, epe
luzera beste bideak hiporekatuz. Osoa
du izena, baina aurrekontuaren % 70-
% 80 errauste plantaren inbertsioak jaten
du. Tratamendu garestiena aukeratzen
dute eta enplegu gutxiena sortzen
duena.

Zabortegia. Hiri hondakin plan in-
tegral horrek zabortegi berezi baten behar-
ria sortzen du —errausketaren ondoren
%30ek egoera solidoan jarraitzen du, eta
besteak forma gaseosoan atmosferara
isurtzen dira—. Zabortegiaren arazoei
aurre egin nahian agertzen da errauske-

ta planta, baina hori gaur ezinezkoa da,
eta gutxiago errausketaren bidea hartu
ezkero. Errausketak ere zabortegiak
behar ditu, eta gainera, bereziak, sor-
tzen diren hondakinak kutsakogarrigo-
ak direlako.

Lege fisikoak dio gauzak ez direla
desagertzen baizik eta transformatu egi-
ren direla; beraz, gure zaborrak desager-
tzeokotan baldin bagabiltza, hartu behar-
reko bideak bestelakoak dira.

Agiar, errauste plantak hautsita-
zikloa osatu beharko litzateke: zaborrak
hondakin bihurtu eta horretarako gaika-
ko bilketa marxan jarri, materia organi-
koa barne. Horrela bakarrik lortu gene-
zake zaborrak desagertzea eta
hondakinak lehengai bihurtzea.